

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Udako ikastaro batek bidaien literatura aztertzen du antzinate klasikotik gaur egunera arte

Nafarroako Unibertsitateak antolatua, ikastaroa abuztuaren 18an eta 19an izango da

Miércoles, 17 de agosto de 2011

Nafarroako Unibertsitateak antolatutako udako ikastaro batean, ostegun eta ostiral honetan, abuztuaren 18an eta 19an, bidaien literatura aztertuko da, antzinate grekolinotik gaur egunera arte. Monografikoa Iruñeko Kondestablearen Jauregian gauzatuko da [Nafarroako unibertsitateen udako ikastaroen hamaikagarren edizioaren](#) baitan, zeinak, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren lankidetzat dituen.

Monografikoak "[Ayer y hoy de la literatura de viajes](#)" (Bidaien literaturaren iragana eta oraina) izenburua duenak, oro har, jendea aro klasikotik gaur egunera bitarteko bidaien literaturara hurbiltzea eta hura ezagutzara ematea du helburu. Besteak beste, iniaziozko bidaia, fantasiatzko bidaia eta bidaia espiritualak landuko dira eta, baita, hainbat bidaiariren profila eta gai horretan dagoen literatur ekoizpena ere.

Zehazki honako hauek aztertuko dira: Odisea, Done Jakue Bidea eta Pedro Ordoñez de Ceballos, Pedro Gobeo de Vitoria, Sor Juana Ines de la Cruz, Pedro Antonio de Alarcon, Victoria Ocampo eta Maria Rosa Oliver-en figurak aztertuko dira. Gainera, "Viajeros españoles" (bidaiari espainiarrak) atari tematikoa, Miguel de Cervantes Liburutegi Birtualean dagoena, aurkeztuko da.

Saio horietara joateko, aldeztu izena ematea beharrezkoa izango da. Izena 18an bertan, goizeko lehenengo orduan, eman ahal izango da. Matrikula arruntaren prezioa 50 eurokoa da, murriztuarena, berriz, 30 eurokoa. Prezioaren zenbatekoa banku-transferentzia bidez (Caja Rural de Navarra / Nafarroako Rural Kutxa) edo www.unav.es/cursosdeverano/lista_cursos.html bitartez ordaindu beharko da.